

BOSGARRENA. - Bide hauek erabil daitezke administrazio bideari amaiera emango dion erabaki honen kontra egiteko, baina inola ere ez aldi berean:

a) Lehenengo eta behin, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki espresurik jaso ezean, errekurtsua ezetsitzat jo dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, beheago agertzen den b) letrako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Presuntziazko ezespina gertatuz gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, presuntziazko ezespina gertatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 46. artikulua).

b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena, 8.3 eta 46. artikulua).